



3. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA, 2008ko apirilaren 18an izandakoa.

TOKIA: Pasaiako hirian eta bertako udaletxean.

DATA: Bi mila eta zortziko apirilaren hemezortzian.

BERTARATU DIRA:

Ander Poza Olabide j.
Iñaki Garmendia Agirregabiria j.
Edurne Baztarrika Bilbao eta
Alvaro Ricón Rivera

Burua:

Maidier Ziganda Población, alkatea.

Lehenengo deialdian, Maidier Ziganda Población alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Obdu Lorenzo de Dios andreak ez du bere ezin etorria justifikatu.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 13:39an bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarreko akta irakurri eta onartzea: 2. akta, 08-03-14koa.

Bertaratuek goiburuan aipatutako akta aztertu dute, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartzea erabaki du, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, eta akta hori dagokion Akta Liburuan jasotzea.

2.- Kontu eta fakturen zerrenda: 2/08.

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontu eta fakturak onartzea erabaki du:

2/08 zka.

Zenbatekoa: HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI MILA ZORTZI EHUN ETA BERROGEITA HAMALAU EURO ETA LAU ZENTIMO (367.854,04 euro).



3.- 1. Ziurtapena: “Hamarretxeta kalea zolatzea gure Zumardiko zatian” obrarena.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, honako ziurtagiria onartzea erabaki du:

1. zenbakia.

Obra: “Hamarretxeta kalea zolatzea gure Zumardiko zatian”

Enpresa kontratista: OTEGI GAZTAÑAGA

Obra-zuzendariak: José j. Michelena

Zenbatekoa: HOGEITA SEI MILA ETA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (26.493,62 euro).

Honako xedatutik ordainduko da: indarrean dagoen aurrekontuko D-1164/07.

4.- 3. Obra ziurtagiria eta azkena: “Pasai Donibaneko Donibane kaleko 98. Zenbakian lur-jausi bat horma berde bidez egongortzeko lanak”.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, honako ziurtagiria onartzea erabaki du:

3. zenbakia.

Obra: “Pasai Donibaneko Donibane kaleko 98. Zenbakian lur-jausi bat horma berde bidez egongortzeko lanak.”

Enpresa kontratista: ACUÑA, S.A.

Obra-zuzendariak: Ikerlkur, S.A.

Zenbatekoa: HOGEITA BOST MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMAIKA EURO ETA HOGEITA HAMALAU EURO (25.191,34 euro).

Honako baimendutik ordainduko da: indarrean dagoen aurrekontuko A-1347/07.

5.- Euskara ikasten ari diren pasaitarrei diru-laguntzak.

Euskarako Informazio Batzordearen buruak 2008ko martxoaren 10ean egindako proposamena aintzat hartuta, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 1992ko ekainaren 1ean hartutako akordioa betez – zeinaren bitartez onartu ziren diru-laguntza horiek emateko irizpideak–, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako hau



ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Euskara ikasten ari diren honako pasaitar hauei aipatutako diru-laguntza ematea:

SUAREZ SAEZ, NEKANE	118,75
SUAREZ SAEZ, NEKANE	129,50
SUAREZ SAEZ, NEKANE	117,75
RUEDA MARTIN, JUAN CARLOS	544,00
<hr/>	
GUZTIRA	910,00 Euro

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdunari, baita aurkez ditzakeen errekurtsoen berri ere.

Hori guztia “10 481 455 10 01, euskararen aldeko diru-laguntzak” partidatik ordainduko da, eta indarrean dagoen udal-aurrekontuko A-257/08 baimendutik.

6.- Berrestea Alkatetzak 08-3-26an emandako ebazpena, eskola-jantokietarako laguntzei buruzkoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, erabaki du 2008ko martxoaren 26an alkateak emandako ebazpena berrestea, jangelarako diru-laguntzak ematearena, hain zuzen ere. Ebazpenak hitzez hitz horrela dio:

“2008ko Martxoaren 25an Gizarte Ekintzako arduradunak jan gelako onuraduren 1.zerrendaren proposamena egin zuen. Proposamen hori aztertu ondoren, alkate honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENGOA eta bakarra.- Espedientean ageri diren onuradunentzako laguntzak onartzea. Guztira 232,00 euroko laguntza emango zaie eta indarrean dagoen udal aurrekontuko A-256/08 baimendutik ordainduko da.”

7.- Diziiplina-espedientearen ebazpena.

Espediente honek babestu behar diren datu pertsonalak ditu.

- Gai-zerrendatik kanpo eta bertaratutako zinegotzi guztien aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartu ditu:

8.- "N-1 errepidea hirian eta ingurunean integratzea (1-a fasea)" obraren 1. Ziurtapena.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, honako ziurtagiria onartzea erabaki du:

1. zenbakia

Obra: "N-1 errepidea hirian eta ingurunean integratzea (1-a fasea)"

Enpresa kontratista: DUMBOA, S.A.

Obra-zuzendariak: LKS INGENIERIA

Zenbatekoa: HIRUROGEITA BI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMO (62.644,61 euro).

Honako baimendutik ordainduko da: indarrean dagoen aurrekontuko A-1347/07.

9.- 4. ziurtapena, "Antxo Iparra 01 Hiri Eremua (C-2 eta C-3 faseak) Maiatzaren Lehena kalea berriro urbanizatzea" obrarena.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, honako ziurtagiria onartzea erabaki du:

4. zenbakia.

Obra: "Antxo Iparra 01 Hiri Eremua (C-2 eta C-3 faseak) Maiatzaren Lehena kalea berriro urbanizatzea".

Enpresa kontratista: CONSTRUCCIONES OTEGI-GAZTAÑAGA

Obra-zuzendariak: Pedro Idarreta Lapazarán (Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari.), Asmatu, S.L., Juan Carlos Lapazarán Izargain (Arkitektoa).

Zenbatekoa: HIRUROGEITA BAT MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO (61.588,30 euro).

Honako xedatutik ordainduko da: indarrean dagoen aurrekontuko D-770/07.

10.- Boveda Aisialdi Taldeari ezohiko diru-laguntza ematea.

2008ko apirilaren 15eko Gazteria eta Kiroleko zinegotziaren proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DU

LEHENGOA.- Boveda Aisialdi Taldeari 2.750 euroko ezohiko diru-laguntza ematea “XXI Txirrin Txarran” dela eta. Donostiako Elizbarrutiko Aisialdi Taldeen Bizi Alai Federazioaren ospakizun hau aurrean Trintxerpen ospatuko da eta 700 pertsona etorriko direla aurreikusten da.

BIGARRENA.- Hori guztia “06-481-456-20-01 Gazte taldeen jardueretarako diru-laguntzak” eta indarrean dagoen A-778/08 baimendutik ordainduko da.

11.- Obra handia egiteko lizentzia eta jarduera lizentzia: Larrabide, 11. Zk.an, 25 lursaila, 1 poligonoa (Jaizkibel).

Pasaiako Udalak 2007ko apirilaren 20an erabaki zuen Gorka Legorburu Mayari eskatzea dokumentazio teknikoa aurkez zezala, Larrabide 1.06 Hiri Jarduera Eremuan jarri nahi zuen jardueraren ezaugarri zehatzak kontuan hartuta dagokion jarduera-lizentzia bideratze aldera.

Halaber, eraikina legeztatzeari dagokionez, abeltzaintzako ustiatzei buruz Hirigintza Ordenantzen 127. artikuluan xedatutakoa justifikatu behar zuen.

2007ko otsailaren 22an interesdunak proiektu teknikoa aurkeztu zuen, Conchi Uriarte Seminario nekazaritzako ingeniari teknikoak sinatua, irailaren 25eko ikus-onetsia zuena.

Udal arkitekto andreak 2008ko martxoaren 18an kontrako txostena egin du, eraikinari buruz bete beharreko araudiarekin bat ez datorrela adierazteko. Hain zuzen ere, txabolaren azalera, gailurraren altuerak eta teilatu-hegalak onartuta dauden neurriak gainditzen dituzte.

Pasaiako Hirigintzako Ordenantzetan, 127. artikuluan, Larrabide (Donibane) etxebizitzak onar ditzakeen nekazaritza eremutzat jotzen da, eta bertan erabilera nagusia nekazaritza eta abeltzaintza ustiapena da, baina izaera ez intentsibokoa.

Aipatutako artikulua horretan hau xedatzen da:

“1.- Abel erabilera arruntak.

Abel-erabilera arruntak beste erabilera baimendu batzuen erabilera erantsi edo autonomo gisara instalatu ahal izango dira landa-zonetan, baratzen balditza berdinetan.

Abereak gordetzeko bere kasuan erabiltzen diren eraikuntzek gutxienez 100 metrotako urrunkera izan beharko dute hiri-arearen mugatik, edo 50 metrotakoa ustiatzei loturik ez dagoen landa-etxebizitzaguztietatik. Hortaz gain, arau hauen 200 eta 201. artikuluek ezarritako baldintzak bete beharko dituzte surkinen saneamendu eta arazketari dagokionez.

Hirigintza Ordenantzek honako hau xedatzen dute baratzen erregimenari buruz:

“2.- Baratzak.

Barazki-probetxamendua duten partzeletan, eta baldin zona bakoitzaren erabilera eta eraikuntza erregimenak baimentzen bada, aipatu ustiategi horietan txabola auxiliarrak eraikitzea baimendu liteke jarraiko epigrafeetan jasotzen den edukinarean arabera:

Erabilerak:

- *Lanabesak gordetzeko eta nekazal-produktuak biltzeko erabiliko dira soilik. Txabolak ez du, hortaz, barne-zatiketarik izango, ezta ere ur-hornidurarik, argindarrik, komunik, tximiniarik edo antzeko instalaziorik.*
- *Txabola batean gainera oiloak, untxiak, hegaztiak edo antzekoak hazi edo txakurrak gorde nahi izanez gero, bere kokapena eta baldintzak abel-erabilera arruntetarako aurrikusitakoaren arabera izango dira.*

Neurriak:

- *Mugakide diren jabegoen txabolak, bi gehienera, elkartu ahal izango dira baldin eta hartzen duten azalera 12 m²-tik gorakoa ez bada.*
- *Baratza eduki eta 500 m²-tik beherako azalera duten partzeletan, edo arautegi honen ondorioz inongo eraikuntzarik onartzen ez dutenetan, arkoi bat edo erabilera bereko antzeko elementuren bat jartzea baimenduko da ondoko neurri hauekin gehienez: 2,50 x 0,75 x 0,75.*
- *Txabolek 2,20 metrotako gehienezko altuera izango dute egarberaino, eta 3 metrotakoa teilatuaren gailurreraino.*

Kokalekua:

- *Partzelaren barruan kokatuko dira, paisaia gutxien erasotzen duten lekuan.*
- *Bide publikoen ertzetatik 5 metrotako aldea gordeko dute, eta gutxienez 2 metrotakoa partzelaren gainontzeko mugetatik. Mugakide diren txabolak elkartzearren, dena den, eraikuntza auxiliarra jabegoak banatzen dituen lerroari erantsi ahal izango zaio.*

Eraikuntzaren ezaugarriak:

- *Egurrez nahiz fabrikaz egingo dira (harlangaitzez, adreiluz zein blokez), kanpoaldetik zarpeatuak eta txuriz edo berde ilunez margotuak. Zurajea ageriko egurrez edo kolore tradizionalaz margotua egingo da, eta estalkia inklinatua, isurki bat edo bikoa eta, ahal denik, teilazkoa izango da; horren ezean gorri edo berde koloreko plakak erabiliko dira, teila imitatuz.*
- *Etxolak, teilapeak edo estalpeak txabolari eranstea debekatzen da.*

Lizentziak:

- *Lizentzia prekarioan emango da beti.*
- *Baldintza higieniko-sanitarioak eta, batibat, isurkinen arazketarako sistema, bermatuta geratuko dira, ordenantza hauen 200 artikulua dionarekin bat etorritik.*

Hirigintzako lizentzia-eskaerei buruzko erabakiak hartzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrak du, espedientearen dagoen txostena lizentzia ematearen aurkakoa denean, Alkateak haren gain utzi baitzuen ahalmen hori.



Hori guztia dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez ematea Gorka Legorburu Mayari lizentzia Larrabide 1.06 Hiri Jarduera Eremuan jarri nahi duen abere-jarduerarentzat eta txabola legeztatzeko; izan ere, azalera, gailurraren altuerak eta teilatu-hegalak onartuta dauden neurriak gainditzen dituzte.

BIGARRENA.- Egun eginda dagoen eraikina araudira egokitzeko agintzea, eta horretarako HILABETEKO EPEAN araudia beteko duen proiektu teknikoa aurkeztu beharko du. Halaber, onartutako neurrietatik kanpo dauden bolumenak eraitsi beharko dira.

HIRUGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea, kontuan izanda jardueraren azalera 52 m²koa izan behar zuela, eta lanen aurrekontua 18.440,03 euro.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:59an amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.